



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Beste hainbat zerbitzu

Osasun-prebentzioa

Osasun-prebentzioaren esparruaren barnean, Udalak zenbait arlotan lan egiten du: elikagaien ikuskaritza, zoonosia, eta abar. Helburua: elikagaien eta uraren osasun-kalitatea zaintzea eta kutsadura akustikoa kontrolatzea, besteak beste.

Elikagaien ikuskaritza

Elikagaien ikuskaritzak Iruñeko biztanleek kontsumitzen dituzten elikagaien osasun-kalitatea zaintzea du xede eta, era berean, elikagaiak prestatzeko, biltegiatzeko eta saltzeko lokalen egokitasuna ziurtatzea, bai eta elikagaiak elaboratu eta manipulatzeko prozesuena eta horretan ari diren langileena ere. 2015eko urtarrilaren 1ean, honako hauek osatzen zuten Iruñeko industria eta establezimenduen zentsua: 1.084 ostalaritza-establezimendu, elikadura arloko 1.272 establezimendu eta elikagaiei lotutako beste motatako 92 establezimendu edo jarduera iraunkor; horiei guztiei, gainera, izaera ez-iraunkorra duten jarduerak gehitu behar zaizkie. 2015ean 3.580 ikuskaritza-bisita egin zitzaizkien guztira, sanferminetan egindakoak barne; azken horien barnean, 97 osasun-kontrolako ikuskaritza egin ziren, eta 50 kasutan antzeman ziren gabeziak. Halaber, 2015ean, 17 osasun-alertatan esku hartu zen (Osasun Publikoaren Institutuak jakinarazi zituen), betiere elikadura-establezimenduetan edo farmazietan banatutako elikagaiei lotuta; bestalde, aholkularitza edo kontrol zerbitzua egin zitzaien izaera ez-iraunkorreko ostalaritza eta elikadura arloko 120 jarduerari, zenbait jai edo ospakizunetan (San Blas, auzoetako festak, feriak, erregio-etxeak eta antzekoak).

Lan horren ondorioz, 2015ean, ofiziozko 64 espediente ireki ziren elikagaien ikuskaritzari lotuta. Haietatik, 74 kasutan proposatu zen zehapen-espedientea abiaraztea, eta 543 ohartarazpen- edo errekerimendu-espediente tramitatu ziren

akatsak zuzentzeari begira.

**2011tik 2015era, ostalaritzan eta elikaduran izandako errekerimendu-
espedienteak**

Sektoreak	2011	2012	2013	2014	2015
Ostalaritza.	299	189	262	231	299
Elikadura	320	192	250	201	244
Guztira	619	381	512	432	543

**2011tik 2015era, ostalaritzan eta elikaduran izandako zehapen-
espedienteak**

Sektoreak	2011	2012	2013	2014	2015
Ostalaritza	79	41	69	48	41
Elikadura	62	45	36	31	33
Guztira	141	86	105	79	74

**Zehapen-espedienteak, 2015ean, ostalaritzan eta elikaduran, zioen arabera
sailkatuta**

Sektoreak	Ostalaritza	Elikadura	Biak
Espediente kopurua	41	33	74

Zehapen-arrazoiak*			
Gabeziak instalazioetan eta tresnetan	36	22	58
Gabeziak elikagaien manipulazioan eta kontserbazioan	27	26	53
Gabeziak langile manipulatzailerengan	13	10	23
GUZTIRA	76	58	134

* Zehapen-espediente batzuk zehapen-arrazoi batek baino gehiagok eragindakoak izan daitezke.

Zoonosia

Zoonosi Unitatea hiriko etxe-animaliei zein horien parekoei lotutako osasun-aferez arduratzen da. Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroan dago. Horretan, zenbait gune daude: zakurrak txertatzeko eta identifikatzeko guneak, egonaldietarako eta osasun-behaketa egiteko guneak, animaliak libre ibiltzeko eremua, eta administrazio-eremua eta herritarrak hartzekoa.

2015ean, 208 zakur eta katu sartu ziren zentroan (2014an baino 56 gutxiago); gehienak eremu publikoan jaso ziren (193). 98 jabeei itzuli zitzaizkien, eta beste 95 adoptatu egin ziren.

Animaliak Hartzeko Zentroan adoptatutako animaliak 2011tik 2015era

	2011	2012	2013	2014	2015
Zakurrak	127	139	87	79	68
Katuak	74	51	52	49	27

Biak	201	190	139	128	95
-------------	-----	-----	-----	-----	-----------

Kontsultategian, errabiaren aurkako 69 txerto eta 111 oroitzapen-dosi jarri ziren, eta hainbat mikrotxip ere. Berrikuntza gisa, 2015ean, bertan behera gelditu zen txertoak jartzeko asteko egun finkoa, eta, horren orde, errabiaren aurkako txertatze-kanpaina eta identifikazio-kanpaina egin ziren, udaberrian (maiatzaren 18tik 23ra) eta udazkenean (urriaren 21etik 23ra).

Halaber, Udaltzaingoak zainketa egiten jarraitu zuen aurre egiteko hala pertsonen eta animalien elkarbizitzatik hirian erator daitezkeen arazoei nola arriskutsuak gerta daitezkeen animaliak edukitzetik etor daitezkeenei. Halako espedienteak irekitzeko arrazoiak aurreko urteetako antzekoak izan ziren, baina 2015ean handitu egin ziren bide publikoan zakurrak aske eramateagatik edo animalia arriskutsuen araua urratzeagatik bideratutakoak.

Animaliak Hartzeko Zentroan adoptatutako animaliak 2011tik 2015era

	2011	2012	2013	2014	2015
Zehapen-arrazoiak					
Zakurrak aske eramateagatik	49	41	51	93	114
Zakurren gorotzak ez biltzeagatik	23	24	21	27	12
Zakurrak baldintza egokietan ez egoteagatik	4	9	--	--	4*
Txertatu edo identifikatzeari buruzko araudia hausteagatik	6	4	4	5	5*
Animalia arriskutsuen araudia hausteagatik	36	46	33	32	49*

Ingurumen-ingeniaritza

Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzuak ingurumena kutsatzen duten isurpenak (zaratak, usainak, keak eta gasak) kontrolatzen ditu, hotsen eta keen mailetan (emisiotan zein immisiotan) arreta berezia jarrita. Ofizioz aritzen da, eta, halaber, Udaltzaingoak zaratagatik jarritako salaketak izapidetzen ditu eta herritarrek egindako salaketei, kontsultei eta informazio-eskariei harrera egiten die.

2015ean, 171 salaketa jarri ziren, haietako 148 kutsadura akustikoagatik eta 23 kez eta usainez kutsatzeagatik.

Ikuskaritzen programa funtsezkoa izan da jasotako salaketen kopurua murrizteko, eta, beraz, herritarrei eragindako eragozpenak gutxitzeko. Zaratagatik jarritako salaketa gehienak bata bestearen gainean dauden etxebizitzetan gertatu dira, gehienbat musika altuaren ondorioz; halere, % 70 murriztu dira 2009tik. 2009tik aurrera, % 36,84 murriztu dira ostalaritzako lokalek (tabernak, kafetegiak, taberna bereziak...) eragindako zarata-salaketak, halako lokaletan ofiziozko ikuskapen gehiago egiten direlako. Eragozpen handiena zaratak gauean etxebizitzetan eragiten duena da, normalean aisiako lokaletako musika altuagatik eta ondoan dauden etxebizitzetako zaratagatik.

Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzuaren salaketak eta ikuskapenak 2011tik 2015era.

	2011	2012	2013	2014	2015
Salaketa kopurua	175	152	192	211	171
Ikuskapen kopurua	172	95	176	104	191

Salaketak kutsadura akustikoagatik 2011tik 2015era

	2011	2012	2013	2014	2015
Tabernak	42	35	58	60	48

Auzotarrak	70	59	71	100	56
Beste batzuk	50	45	49	37	44
Kuts. akustikoagatik jarritako salaketak guztira	162	139	178	197	148

Salaketak ke eta usainek eragindako kutsaduragatik 2011tik 2015era

	2011	2012	2013	2014	2015
Salaketak kutsad. atmosferikoagatik (keak-usainak)	13	13	14	11	23

Ofiziozko ikuskapenak 2011tik 2015era

Urtea	2011	2012	2013	2014	2015
Ostalaritza Ikuskapenak	658	983	1.126	1.207	1.033
Bestelako ikuskapenak (merkataritza, industrialak)	140	69	203	184	195
Ikuskapenak guztira	798	1.052	1.329	1.391	1.228

Ingurumen-osasuna


Iruñeko Udalak, Ingurumen Osasunerako Zerbitzuaren bidez, zainketa-lanak egiten ditu hauen inguruan: giza kontsumorako hornidura-sareko ura, ibaietako ura, erabilera kolektiborako igerilekuak, haur-eskolak, estetika- eta norberaren

garbitasun-jarduerak egin diren lokalak, eta merkataritza-lokal berriak edo titulartasuna aldatu dutenak. Zerbitzuak bere ekimenez (ofizioz) dihardu, edo bestela, herritarrek eskaturik.

2015ean, ofiziozko 1.914 ikuskapen egin ziren, hau da, aurreko urtean baino % 8 gehiago (1.772). Herritarrek 50 eskari aurkeztu zituzten, eta guztiei erantzun zitzaien.

Honako leku hauetan egin ziren ikuskapenak gehienbat: igerilekuetan (415), haurtzaindegietan (48), estetika-lokaletan (697) eta merkataritza-lokal berrietan (656); bestetik, ikuskapenetan atzemandako gabeziengatik sortutako espedienteen jarraipena (98) ere egin zen. Hartutako laginei dagokienez, gehienak giza kontsumora bideratutako urarenak dira (1.514), baina igerilekuetako ura ere bildu zen (253), baita ibaietakoa ere (23).

2015eko ikuskapenak



Aurreko urteetan bezala, irekitzeko lizentzia berria duten edo titulartasuna aldatu duten merkataritza-lokaletan egin dira ikuskapenen herenak (379 lokal ikuskatu dira). Haietatik, 46tan gabeziaren bat zegoen, bereziki aireztatzeari edo osasun-

desbideratze funtzionalei lotutakoak.

Lokalei egindako ikuskapenen bilakaera

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Ikuskatutako lokalen kopurua	416	506	432	493	501	379
Gabeziak dituzten lokalen kopurua	72	79	91	70	57	46
1. ikuskapen-bisitan zuzen ez zeuden lokalen %	17,3	15,6	25,8	14,2	11,4	12,14

Udal-laborategia

Udal Laborategia arduratzen da elikagaiak eta urak osasunaren aldetik kontrolatzeko beharrezkoak diren analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egiteaz, Elikagaien eta Osasun Ingurumenaren Ikuskaritzak hartutako laginak abiapuntu hartuta. Elikagaiak kontrolatzeari dagokionez, elikagaien egoera egiaztatzen da elikadura- eta ostalaritza-establezimenduetan eta eskola-jantokietan.

2015ean, 552 elikagai-lagin bildu ziren, eta 2.074 saiakuntza kimiko eta 615 mikrobiologiko egin ziren haietan. Halaber, 1.094 ur-lagin bildu ziren (sarekoak, igerilekuetakoak, ibaietakoak eta hidromasajetakoak), eta 24.314 saiakuntza egin ziren haietan (18.011 kimiko eta 6.303 mikrobiologiko). Era berean, 2015ean, 427 lagin egin ziren hirugarrenek hala eskatuta, 41 partikularrek eta enpresek eskatuta eta 386 erakunde ofizialek aurkeztuta.

Lokalei egindako ikuskapenen bilakaera

Jatorria	Lagin kopurua	Saiakuntza kimikoak	Saiakuntza mikrobiologikoak	Saiakuntzak guztira	Saiakuntzak / lagina
----------	---------------	---------------------	-----------------------------	---------------------	----------------------

Elikadura- ikuskaritza	1.794	18.011	6.303	24.314	% 13,6
Elikadura- ikuskaritza	552	2.074	615	2.689	% 4,9
Hirugarrenek eskatuta	427	1.315	17	1.332	% 3,1
Analisi- kontrola	476	1.153	400	1.553	% 3,3
Guztira	3.249	22.553	7.335	29.888	% 9,2

Osasun-zerbitzuak

Iruñeko Udalak, epidemiologia-zerbitzuaren bitartez, zenbait jarduera egiten ditu osasuna sustatu eta hobetzeko begira.

Epidemiologia Zerbitzua

Zerbitzu hau zaintza eta analisi epidemiologikoez arduratzen da, bai eta osasuna sustatzeko eta bultzatzeko programak kudeatzeaz eta osasun publikoan ikerkuntza egiteaz ere. 2015ean egindako jardueren artean, “Gosaldu egunero” programari jarraipena eman izana da nabarmentzekoa. Iruñeko Lehen Hezkuntzako 41 ikastetxetan garatu zen programa (19 publikotan eta eta 22 itundutan), eta guztira 1.966 ikaslek parte hartu zuten (1.143 ikastetxe itunduetakoak eta 823 ikastetxe publikoetakoak).

Honako taula honetan, ohiko gosariari buruzko inkestaren emaitza batzuen joera aurkezten da, programaren lehen ediziotik hasita.

“Ohiko gosariaren ezaugarriak” inkestaren joerak

	2008-09	2009-10	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15
--	---------	---------	---------	---------	---------	---------	----------------

Osasuna hobetzen laguntzeko ariketa fisikoa egitera bideratutakoa da beste jarduera-bloke bat. 2015ean, ibilketa nordikoen beste txanda bat antolatu zen. Jarduera hori 2008an hasi zen, eta orduz geroztik 2.156 leku eskaini ditu, doakoak izan zirenak 2010. urtera arte.

Ibilketa nordikorako hastapen-saioak, 2008. urtean abian jarri zirenetik.

URTEA	Egun kopurua	Saio-aldia	Pertsona kop. /saio bakoitzeko	Eskainitako tokiak	Laguntzen duten Civivoxen kopurua
2008	17	Irail-Azaro	15	255	4
2009	10	Mar-Maiatza	22	241	6
2009	15	Iraila-Azaro	22	330	5
2010	8	Apirila-Ekaina	30	240	2
2010	7	Urria-Azaro	30	210	4
2011	6	Apirila-Maiatza	30	180	3
2012	7	Apirila-Maiatza	28	196	4
2013	4	Maiatza	28	112	4
2014	4	Maiatza	28	112	4
2014	6	Irail-Urria	28	168	3

Epidemiologia-zerbitzuak, bestalde, hiriko landare-espezie nagusietako polen-mailari buruzko doako argibide-zerbitzua eskaintzen du martxotik ekainera, polenekiko sentiberak diren herritarrengan arazoak sor ditzaketelako. 2015ean, 1.035 pertsonak emana zuten izena zerbitzu horretan. Martxoaren 9tik ekainaren 22ra bitarte 14.535 sms eta 1.535 mezu elektronikoki bidali ziren.

Polen-mailari buruzko argibidea jasotzen duen lagun kopuruaren bilakaera

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Izena emandakoen kopurua	330	236	362	530	846	1.035

Higiene eta desinfekzio zerbitzuak

Iruñeko Udalak desinfekzio-lanak eta arratoiak hiltzeko lanak egiten ditu hirian, eta, halaber, higiene-zerbitzu publikoak eskaintzen ditu, besteak beste, bainu-etxe eta komun publikoen bitartez.

Desinfekzio Parkea

Desinfekzio Parkeak desinfekziorako, arratoiak eta intsektuak hiltzeko eta usainak kentzeko lanak egiten ditu lokaletan eta eremu publikoan, ofizioz edo partikularrek hala eskatuta.

2015ean, 21.193 zerbitzu egin ziren, hau da, aurreko urtean baino % 4,2 gutxiago, bereziki arratoiak eta intsektuak hiltzeko lan gutxiago egin zirelako, eta ibai-ertzetan jaki errodentizidak ez zirelako jarri. Aurreko urteekin alderatuta zerbitzu kopurua jaitsi izana positibotzat jotzen da bektoreen kontrolari dagokionez, horrek esan nahi du animalia-populazioa egonkor dagoela, eta, hain zuzen ere, horixe da tratamenduaren helburua. Desinfekzioei dagokienez, aldiz, bere hartan mantendu da kopurua.

Desinfekzioak. Zerbitzuen xehetasuna eta bilakaeraren joera

	2011	2012	2013	2014	2015
Desalokairuak	0	0	0	0	0
Desinfekzioak (partikularrak)	19	16	17	9	15
Autoklabeak	25	26	60	79	107
Formaldehido-ganbera	2	3	0	0	0
San Domingoko eta Zabalguneko merkatuak.	52	53	52	52	104
Udal-zerbitzuak (bide publikoa)	2.153	2.086	2.108	2.198	2.082
Arropa-garbiketa (zuhurtziazkoa)	61	82	175	249	332
Arropa-garbiketa udal-egoitzetan	620	598	621	652	649
Guztira	2.932	2.864	3.033	3.239	3.289

Komun publikoak

Hirian 10 komun tradizional daude (obraoak eta langileek kudeatuta) eta beste 25 komun automatiko, hiriko zenbait eremutan banatuta. Honako hauek dira komun tradizional erabilienak: Gazteluko plazakoa, Basotxokoa eta Foruen plazakoa. Eta hauek dira erabilienak automatikoki garbitzen direnen artean: Gazteluko plazakoa, San Frantzisko plazakoa eta Sarasate pasealekukoa.

Erabilera-kopurua komun tradizional bakoitzean

	Ekainaren	Azaroaren	Batez	Urteko
--	-----------	-----------	-------	--------

	22tik 28ra	16tik 22ra.	beste	estimazioa
Sarasate pasealekua	4.265	3.680	3.973	206.596
Antoniutti parkea	3.372	3.205	3.289	171.028
Basotxoa	5.892	3.223	4.558	237.016
Ziudadela	2.713	1.589	2.151	111.852
Foruen plaza	5.236	3.718	4.477	232.804
Gurutzeko plaza	4.160	4.241	4.201	218.452
Gazteluko plaza.	7.846	6.363	7.105	369.460
Munduko parkea	1.693	1.145	1.419	73.788
Media Luna	2.663	1.327	1.995	103.740
Guztira	37.840	28.491	33.166	1.724.736

Erabilera-kopurua automatikoki garbitzen den komun bakoitzean

	2011	2012	2013	2014	2015
Gazteluko plaza	28.546	33.774	37.159	40.333	39.488
Sanduzelai	15.909	15.856	13.758	13.813	14.756

Magdalenako zubia	13.452	13.917	13.896	13.842	14.120
Runa parkea	13.686	13.083	13.432	11.077	14.462
Maiteminduen parkea	12.368	15.590	12.593	13.432	10.386
Mendillorri (ikastetxea)	8.557	9.159	8.869	7.914	8.119
Mendillorri (aintzira)	7.278	5.412	4.218	4.111	4.538
Carriquiri kalea	6.940	5.310	4.775	5.307	5.070
Felisa Munárriz plaza	10.869	10.903	9.947	10.649	6.994
Sarasate pasealekua	18.922	27.902	33.282	33.586	31.447
La Olivako monasterioa	24.752	24.613	22.371	23.160	23.782
Vaguada	18.430	18.398	17.892	10.319	10.377
Gartzia Naiarakoaren pasealekua	19.618	22.632	21.896	22.398	22.195
Serafín Olave	19.167	20.057	18.940	23.201	23.147
Ilargi-Enea parkea	5.323	7.148	6.004	4.372	6.900
Karlos III.a	14.116	14.002	15.489	20.034	24.377
San Roke	4.756	4.347	6.844	6.024	3.428

Martzillako mon.	4.947	4.351	5.247	5.972	4.436
Viñaburu-Ospitaleak	1.404	2.607	3.736	3.815	2.977
Turrillas plaza	1.368	3.493	4.396	6.368	6.408
Gares plaza		2.088	4.951	5.583	6.271
Erriberri kalea		2.973	4.646	6.538	7.200
San Frantzisko				25.916	36.901
Alfredo Landa-Lezkairuko zaldua				8.942	12.955
Sandua pasealekua					4.938
Guztira	250.408	277.615	284.341	326.706	345.672

Bainuetxea eta Antoniuttiko dutexak

Bainuetxean (Eslava kalea) egunero ematen zaio dutexaren, bainuaren edo arropa garbitzearen zerbitzua halakorik eskatzen duen jendeari. Zerbitzuak 8 dutxa-kabina ditu jendearentzat, bai eta 6 bainu-ontzi (bi egokituak, minusbaliatuek erabil ditzaten), 3 garbigailu eta 3 lehorgailu ere.

2015ean, gutxitu egin zen dutxa- eta bainu-zerbitzuen kopurua, 6.964 izan baitziren (2014an baino % 3 gutxiago), eta handitu egin zen garbiketa- eta lehorketa-zerbitzuen kopurua, 3.022 izanik (2014an baino % 27 gehiago izan ziren, bereziki auzo-unitateek bidalitako erabiltzaileei emandako zerbitzuengatik).

Dutxa-erabileren kopurua Bilakaeraren joera

	2011	2012	2013	2014	2015
Gizarte-zerbitzuen dutxa kopurua	456	876	809	741	678
Dutxa kopurua guztira	7.402	7.992	8.123	7.190	6.963
Bainu kopurua	3	7	11	4	1
Dutxak eta bainuak guztira	7.405	7.999	8.134	7.194	6.964

Dutxa-erabileren kopurua Bilakaeraren joera

	2011	2012	2013	2014	2015
Gizarte zerbitzuen garbiketa kopurua	178	544	370	571	865
Garbiketa kopurua guztira	1.188	1.324	1.095	1.240	1.545
Lehorketa kopurua	1.036	1.248	942	1.142	1.477
Garbiketak eta lehorketak guztira	2.224	2.572	2.037	2.382	3.022

Urtean zeharko zerbitzu horretaz gainera, Iruñeko Udalak dutxa-zerbitzu publikoa eskaintzen du sanferminetan, Antoniutti parkean. 6 dutxa ditu, eta eguraldiaren arabera erabiltzen da gehiago edo gutxiago. 2015ean, 1.089 erabilera izan ziren, 2014an baino %40,3 gehiago (776 erabilera).

Xiringen bilketa

Zerbitzu horrek bide publikoan abandonatuta dauden xiringak jaso eta suntsitzea du xede, gaixotasunik transmititu ez dadin hondakin sanitarioak direla eta.

Astean bitan ibilbideak egiten dira, eta xiringa gehien Donibanen eta Zabalgunean aurkitzen dira. 2015ean, murriztu egin zen jasotako xiringen kopurua: 2014an 92 izan ziren, eta 2015ean, 42.

Jasotako xiringen banaketa sektoreen arabera Bilakaera

	2011	2012	2013	2014	2015
Alde Zaharra	6	17	11	3	6
Arrotxapea	9	2	4	15	4
Sanduzelai	119	29	17	2	4
Donibane	92	165	145	63	18
Txantrea	9	4	7	1	0
Milagrosa	0	9	0	0	0
Landaben	0	0	0	0	0
Etxabakoitz	0	1	5	0	0
Iturrama	3	1	0	0	0
Mendillorri	0	0	0	1	0
Guztira	254	231	198	92	42

Iruñeko hilerria

Iruñeko San Jose hilerrian gorpuak lurperatzen eta errausten dira (eta gorpuak lurpetik ateratzen, birlurperatzen eta gorpuzkinak errausten ere), betiere behar bezalako baldintzetan higieneari eta osasunari dagokienez, errespetuz eta garbitasunez.

2015ean, 2.573 gorpu ehortzi ziren, hau da, 2014an baino % 1,3 gehiago. Azken urteotan gertatu izan den bezala, handitu egin da errausketen kopurua, % 5,7 igo baitira 2014ko emaitzekin alderatuta (1.786 izatetik 1.888 izatera); lurperatzeek, berriz, gainbeheran jarraitzen dute, nitxoetan (500etik 457ra, % 8,6 gutxiago), hilobian (20tik 15era, % 25 gutxiago) eta panteoietan (234tik 214ra, % 8,5 gutxiago).

Bukatzeko, lupetik ateratzeak % 10,6 jaitsi dira, 1.225etik 1.094ra 2015ean. 2001ean errauste-zerbitzua ezartzearen ondorioa da gutxitze hori, nitxo gutxiago okupatzen baita orain.

Lurperatze motak	2011	2012	2013	2014	2015
Nitxoak	560	510	481	500	457
Lurra	17	20	19	20	15
Panteoiak	220	197	189	234	214
Gorpu-errausketak	1.440	1.500	1.568	1.786	1.888
Guztira	2.237	2.227	2.257	2.540	2.573

Lupetik ateratzeen helmuga	2011	2012	2013	2014	2015
----------------------------	------	------	------	------	------

Beste hilerri batera	241	245	254	84	9
Hezurtegi bateratura	1.133	686	675	795	681
Birlurperatzeak	149	134	139	106	127
Gorpuzki-errausketak	226	220	328	240	277
Guztira	1.749	1.285	1.396	1.225	1.094

2015. urtea bukatzean, hilerrian 2.683 nitxo libre zeuden, aurreko urtean baino 273 gehiago; halaber, 34 lur-hilobi erabilgarri eta 97 kolunbario libre zeuden. Errauts-kolunbario gutxi eskaintzen da, baina gorpuzkin-kolunbarioekin orekatzen da, horiek ere erabilgarriak baitira errautsak gordetzeko.